# U. Kaixo

Urretxuko Udal Aldizkaria

104. alea
2011ko uztaila



■ 2_Udal-gai nagusia
_Santa Barbara inguruan proiektu berria

■ 12_Herriko gai nagusia
_Plan para la Convivencia e Inmigración

■ 18_Erreportaia
_Urretxu eta Schwarzenbruck, 20 urte elkarri begira

■ 20_Elkarrizketa
_Itziar Sasieta, Santa Barbarako serora

# Santa Barbara inguruarekin gehiago gozatuko dugu



**Urretxuarrok abantaila handiak izango ditugu Santa Barbara inguruan bultzatzen ari den proiektu berriarekin. Udalak plangintza berezi batean dihardu herri inguruko natura babesteko, nekazaritza indartzeko, herritarren aisialdi eskaintza zabaldu eta, kultura bitartez, herri izaera gordetzeko. Denon bizi kalitatea hobetzera begira, ingurua modu integratuan kudeatuko da: aisialdirako guneak zabaldu Santa Barbara inguruan, behe aldetik hasi eta Irimo gailurra arte, baso zein nekazal eremuak egokitzea ikusten da.**

Azken hamarkadan Urretxuk izan duen hazkunde urbanistikoak Irimo ingurua zeregin ezberdinetarako erabili behar izana ekarri du, bertan ematen diren jarduera ezberdinak askotan elkarren traban egon direlarik, aisialdirako udal instalazioak, hezkuntza, zurgintza eta abeltzaintzarako zerbitzuak kasu. Horren aurrean, jarduera bakoitzak beharrezko duen esparrua eta elkarren arteko oreka ziurtatuko duen osoko plangintza garatzeko beharra ikusi du Udalak. Hiru dira garatu diren ardatzak: nekazaritza bultzatzea, biodibertsitatea babestea, eta kultura jardunen azaleraztea. Hauen bitartez, landa ekonomia suspertzea, turismoa potentziatzea eta aisialdiaren eskaintza zabaltzea lortuko da. Herritarren bizi kalitatea hobetzea eta herri izaera indartzea da helburua.

## Nekazaritzaren garapena

Ekonomia arloan nekazaritza sektorea garatzeko aukerak zabaltzea bilatzen da. Baserritarren jardueretarako eta baserrietarako beharrezkoak diren bide eta azpiegiturak egokitu eta sortuko dira, besteak beste, nekazal eta egur parkeak. Bestalde, Deskarga inguruan egiten ari diren obrak medio, ateratzen den betelanarekin nekazal jardueretara bideratutako proiektu komuna garatu nahi da, belar-bazka landatzeko eremuak egokituz, besteren artean. Atzetik, auzolana eta lurren erabilpen komuna bultza-

Kaixo
104.alea
2011ko uztaila
Urretxuko Udal Aldizkaria

*Ale honetako laguntzaileak:*
Aztiker, Jesus Mari Alberdi, Iñaki Arriaran, Sara Arrizabalaga, Gorka Azkarate, Irene Calvillo, Miren Castillo, Jon Castrillo, Miguel Cristobal, Begoña Etxaniz, Rosa Etxaniz, Ana Isabel Iturbe, Unai Lazkano, Ana Ovejas, Maite Quevedo, Kizkitza Ugarteburu, Mari Carmen Viedma

*Argazkiak:*
Luis Angel Téllez, Gotzon Aranburu eta Kaixoko laguntzaileak.

Lege Gordailua: SS/678/93

Konposaketa: ERROTAPRINT Inprimaketa: IPARRAGIRRE, S.A.

Tirada: 3.300 Ale

KAIXOk ez du derrigorrez bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas.*

Ez bazara Urretxun bizi eta KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

*Si no vives en Urretxu y quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net.*

*Santa Barbara parkearen eremua handituko da.*



tuko da. Eskualdeko baserritarrentzako erreferentziazko nekazal gunea sortzea ere espero da. Oro har, baserritarren bizi kalitatea hobetuko da, eremuari kohesio sozial handiagoa emango zaiolarik.

## Biodibertsitatea eta naturgune erabilanitzak

Natura, aisialdirako tokiak, berdeguneak eta lasaitasunerako lekuak eskuragarri izatea bilatzen da. Udalak basogintza politika hemengo landaretzara hurbilduko du zuhaitz hostozabalen bitartez eta energia berriztagarriak bultzatuko ditu, biomasa bitartez esaterako. Horretarako, estrategikoki aztertu diren herriko hainbat lur eskuratzea aurreikusten da.

Aterpetxe eta ermitaren parke eremua handitu egingo da, herritarron gozamenerako. Eraikinen inguruak aisialdiaren beharretarako egokituko dira eta bertako landaretzan oinarritutako ibilbide sarea sortuko da, besteak beste. Herritarrok horren guztiaren informazioa izango dugu, jarriko diren panel eta seinaleen bitartez.

## Urretxuko izaeran, kultura eta etnografia

Herri izaera oso errotuta dago oraindik ere Urretxun. Ohiturak, hizkuntza, nekazaritza, historia, eta etnografia horren isla dira. Burutze lanetan daudenen artean, honako hauek nabaritzen dira: Karakateko kordala bidea antolatu GR modura, Trikuharrien ibilbidea izenarekin ezaguna dena eta Antzuola, Bergara, Soraluze, Azkoitia eta Urretxu hartzen dituena; Irimoko errege bidea eta elurzuloak berreskuratuko dira eta Urretxuko euskarari lotutako ikerketa bat ere aurreikusi da.

Sentsibilizazioa bultzatuko da eta formazio ekintzak antolatuko dira.



# Actuaciones previstas

### Zona alta de Santa Bárbara-Irimo

Se crearán vías de saca y parques de almacenado de uso forestal y agropecuario y se mejorarán accesos a caseríos. Compra de tierras destinadas a mantener la biodiversidad.

### “Parque” de Santa Bárbara

Adecuación de instalaciones y creación de paseo botánico. Señalización y paneles informativos de la zona.

### Agroaldea piloto (Deskarga)

Creación de infraestructuras de impulso al sector agrario y reconversión de tierras de relleno en eriales y prados. Creación de microhuertos urbanos.

_Udaltzaingoa

# Ipeñarrietako zirkuitoa



Urretxuko eta Zumarragako bi udalerrien artean adostutako "Urretxu eta Zumarragako Mugikortasun eta Trafikoaren Osoko Plana"-ren beste pausu bat eman berri da Ipeñarrieta inguruan. Honen ondorioz Ipeñarrieta kalea norabide bakarrekoa bihurtu da, zirkulazioa Isabeleneko bidegurutzetik Legazpirako norantzan izatera pasatuz. Bestalde, Urretxurako sarrera Legazpi aldetik egin nahi izanez gero, hau, Zumarragako estaziotik barrena egin beharko da, hortik Isabeleneko bidegurutzera helduaz.

Honekin batera, eta ikusirik Ipeñarrieta kalea norabide bakarrekoa bihurtu dela eta aldaketa honek sortzen duen espazio berria aprobetxatuz, Pagoeta ingurua eta Legazpi bideko bidegorriarekin bat egiten duen bidegorri zati bat sortu egin da Ipeñarrieta kalean zehar, norantzaren ezkerraldean, horrela, herria bizikletan zeharkatzeko aukera emanez, orain artean Isabeleneko bidegurutzean mozten zela esan daiteke lehendik dagoen bidegorria.

Ipeñarrieta kale bukaerako aparkalekuetan ere aldaketa izan da; norabide bakarrarekin sortzen den espazioa aprobetxatuz, bertan zeuden aparkalekuak baterian jarri dira eta horrela aparkaleku kopurua handitu da.

_Hirigintza

# Nueva señalización urbana

Urretxu, como el resto de municipios, se ha ido transformando a lo largo de los años y fruto de esta transformación son las nuevas calles y plazas que se han creado. La señalización urbana de estos espacios ha de adecuarse también a esta evolución. Por ello, este Ayuntamiento ha procedido a la adquisición de nuevas placas de calle para su colocación en todo el municipio. Con esta actuación se pretende un doble objetivo: el primero y principal es conseguir que todo aquél que se acerque a nuestra villa pueda situarse y encontrar el lugar que busca; y el otro, importante también, contar con una señalización clara y unificada, esto es, un único modelo para toda la villa.



_Ogasuna

# Bonificaciones, exenciones e impuestos municipales

### Impuesto municipal sobre vehículos de tracción mecánica

Modificación en el apartado b) del artículo 2.1. Están exentos:

a Aquellas personas que tengan reconocido un grado de minusvalía igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tales las incluidas en alguna de las situaciones descritas en el Anexo 3 del R.D.1971/1999 o que obtengan 7 o más puntos en las letras D,E,F,G o H del citado baremo.

b Aquellas personas con un grado de minusvalía igual o superior al 65 por 100. Las personas incluidas en las letras a) y b) anteriores que se encuentren en situación carencial de movilidad reducida calificada con la letra A en el baremo que figura en el Anexo 3, no les será de aplicación el límite de 14 caballos fiscales, siempre que el vehículo se encuentre adaptado para el uso con sillas de ruedas.

Artículo 2.- Se adiciona un último párrafo e) del punto 1 del artículo 2 que queda redactado de la siguiente manera: Quedarán también exentos del impuesto los vehículos cuyos titulares acrediten que tienen a su cargo, por razón de patria potestad, tutela o curatela, a alguna persona con un grado de minusvalía igual o superior al 65%. Deberán acreditar el grado de minusvalía y la relación con la persona con minusvalía.

**Bonificación**

Para disfrute de estas bonificaciones se requerirá el reconocimiento previo del Ayuntamiento:

c Equivalente al 100% de la cuota del impuesto para los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de 25 años, a partir de la fecha de su fabricación.

d Equivalente al 75% de la cuota del impuesto a todos los vehículos eléctricos, híbridos y los ecos (emisiones menores de 130gr/km de C02).



### Impuesto municipal sobre bienes inmuebles de naturaleza urbana. Bonificación

**Titulares de Familia Numerosa**.

De tres hijos o equiparable: el 50% de la cuota íntegra del impuesto

De cuatro hijos o equiparable: el 70% de la cuota íntegra del impuesto.

De cinco o más hijos o equiparable: el 90% de la cuota íntegra del impuesto.

Aprobación por el Pleno de la Corporación de fecha 11 de Abril de 2011. La bonificación se aplicará siempre y cuando el valor catastral habitual no supere los 150.000 euros, (anteriormente la bonificación se aplicaba si el valor catastral no superaba los 117.536 Euros).

_Enplegua

# Erregistro elektronikoa

Urretxuko web-orrian prest dago "tramiteak online" atalean **erregistro elektronikoa**. Baina zer da hau?

Orain arte, eskaeraren bat, dokumentuak, etabar erregistratzeko, udaletxera bertaratu behar ziren herritarrak, baina orain internetez egin daiteke modu errazean. Eskaera orriak eta eskaerari dagokion dokumentazioa erantsi daitezke erregistroa egiterakoan, eta behin erregistroa egindakoan, sarrera egin izana justifikatzen duen dokumentua eskura dezakezu (gordetzeko ala inprimatzeko); eta gainera, noiznahi kontsulta ditzakezu egindako erregistro guztiak.

Horretarako identifikazio sistema erabili behar da. Udalaren Zerbitzu Elektronikoetara sartzeko edota dokumentuak On-Line eskuratzeko, beharrezkoa da identifikazioa. **Identifikatzeko** bi aukera hauek daude:

**Txartel elektronikoa**: Izenpeko txartela (KZgunean lortu daiteke), ONA edota - DNI-e (NAN berritzerakoan ematen dute).

Edo bestela...

Ziurtagiri digitalik ez baduzu, beste aukera bat duzu on-line tramiteetan identifikatu eta jarduteko: **erabiltzaile gakoa eta pasahitza** erabiltzea. Hauek lortzeko, udaletxean eskatu behar dira, bai zuzenean edota internet bidez.

Eta erabiltzen ikasteko, aukera aparta duzu Urretxuko Kzguneko ikastaroetan.

_Gizarte ekimena

# Itxaropen Ozeanoak

Indiako emakume arrain-saltzaileak beren eskubideen alde daramaten borrokaren berri ematen izan ziren Urretxun. Udalak emandako laguntzari esker ekimen ugari jarri dituzte abian.

“Calcuta Ondoan” Gobernuz Kanpoko Erakundeak, India hegoaldeko arrantzale komunitateetan emakume eta neskek bizitzen duten diskriminazio eta baztertze egoerarekin bukatzeko borrokan dagoen Emakume Arrain-saltzaileen Federazio bat laguntzen dio. Federazio horretan parte hartzen duten Sherly Kutty Joseph eta Mary Babu Urretxun izan ziren apirilaren 8an, beraien bisitarekin Urretxuk emandako laguntza eskertu nahi izan zuten, eta bide batez, aurrera eraman duten proiektua azaldu eta ekitate ezaren eta desberdintasunen aurka mantentzen duten borrokari buruz hitz egin zuten.
Gaikuntza saioei esker, Indiako emakume hauen eta beren familien bizitzak hobetuz doaz. Gizonak bezalakoxe eskubideak dituztela kontzientziatzen ari dira. Bide honetan jarraituz, eta behin eskubide eta errekonozimendua lortuta, zaila izango da hauek berriro galtzea.

Ondorengo ekimenak jarri dituzte martxan:

- **Tokiko Gobernua eta honen paper eta funtzioen inguruko gaitze saioa**
  64 ikastaro eman dira eta 1.274 emakumek parte hartu dute. Emakumeek ere, erabakiguneetan aktiboki parte hartu ahal izateko gaikuntza lortzea izan da ikastaro hauen helburua.
- **Genero arteko ezberdintasuna eta emakumeen trafikoari buruzko gaitze saioa**
  Indian, milaka emakumek egunero sexu eta lan esplotazioa jasaten dute. Ikastaroetan prostituzio sareetan ez erortzeko kontuan zer izan behar den ere esplikatu zitzaien 895 emakumeri, antolatu diren 37 tailerretan.
- **HIES aren inguruko kontzientziazio saioa**
  India, HIES kasu gehien duen munduko bigarren herrialdea da une honetan, eta laster lehengoa izango dela aurreikusten da. 542 pertsonek parte hartu duten 19 ikastaro eman dituzte. Saio hauetan, HIESaren sintoma ohikoei zeintzuk diren, kutsatze moduei eta prebentzioari buruz hitz egin da.
- **Mailegu banaketa**
  Formazio saio baten ondoren, arraina eta honen deribatuak saltzeko negozio txikiak jartzeko diru-laguntzak eman zaizkie emakumeei. 1.800.000 rupia banatu dira laguntzetan.



## Ventanilla única de Etxebide

La “Ventanilla única de Etxebide” es un convenio de colaboración que han firmado El Ayuntamiento de Urretxu con el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes del Gobierno.
El objetivo de este convenio es facilitar el acceso de la ciudadanía a los recursos de Etxebide. Así, en adelante, las altas, las modificaciones y las bajas que se quieran hacer en los expedientes de Etxebide, se podrán gestionar desde la Secretaría del Área de Acción Social de Urretxu.

_Euskara

# Udalaren diru-laguntzak



Joan zen apirilaren 11n egindako osoko bilkuran, 2011. urtean Udalak banatuko dituen diru-laguntzen oinarriak onartu zituen Urretxuko Udalbatzak.

Bost arlo nagusitako jarduerak dira oinarri hauen bitartez diruz lagunduko direnak: euskara, kultura, hezkuntza, kirola eta gizarte ekimena.

**Euskara:** Alde batetik, barnetegietan euskara ikasten eta Udako Euskal Unibertsitatean euskarazko ikastaroetan parte hartzen duten ikasleak diruz laguntzeko; eta bestetik, establezimenduetako errotuluak, irudi korporatiboa eta web orria euskaraz jartzeko laguntzak.

**Kultura:** Hiru lerro nagusi biltzen dira kulturaren arloan: kultur elkarteen jarduerak laguntzekoa, filma laburren eta bideoklipen ekoizpena laguntzekoa eta tabernetan formatu txikiko euskarazko kultur adierazpenak laguntzekoa.

**Hezkuntza:** Ikastetxeek eskolaz kanpo egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko lerroa.

**Kirola:** Kirol jarduera arruntak eta apartekoak laguntzeko lerroa dugu.

**Gizarte Ekimena:** Arlo honetan bost laguntza lerro biltzen dira: Nazioarteko lankidetzarako diru-laguntzak, droga menpekotasuna eta beste menpekotasun psikologiko batzuen tratamendurako laguntzak, espetxeetan preso dauden senideen garraiorako laguntzak, udal tasak ordaintzeko laguntzak eta, azkenik, gizartearen arloan diharduten elkarteentzako laguntzak.

## Ostalaritzan euskararen erabilera indartzeko ekimenak

Bost urte igaro dira Urola Garaia Mankomunitatean merkataritzaren arloan euskararen erabilera sustatzeko plana martxan jarri zenetik; denboraldi guzti horretan dendarien eta bezeroen arteko komunikazioan euskara bultzatzeko jarduera ugari antolatu dute Mankomunitateko euskara zerbitzuek, EMUN enpresaren laguntzarekin.



Aurten, berriz, taberna eta jatetxeak izango dira planaren ardatz, eta horretarako, besteak beste, ekimen hauek aurreikusi dituzte euskara zerbitzuek:

- **Goierriko Hitzaren harpidetza**: euskarazko prentsak ere presentzia izan dezan herriko taberna eta jatetxeetan; irakurle euskaldunek aukera izan dezaten eskualdeko albisteak euskaraz irakurtzeko. Hala eskatu duten ostalariei hiru hilabeterako harpidetza egin zaie doan.
- **Ostalarien arteko mintza laguna**: orain arte merkatariekin egin izan den moduan, datorren iraila-urrian tabernarien arteko mintza laguna martxan jartzeko asmoa dute euskara zerbitzuek, hain zuzen ere euskarazko maila apala duten tabernariek mintza praktika egiteko aukera izan dezaten.

_Kirolak

# Udal igerilekuak

Joan zen ekainaren 11n eman genion hasiera udako denboraldiari Urretxuko Pagoeta igerilekuan eta irailaren 11ra arte egongo da zabalik; urteroko hiru hilabetetako abonuaren ordez, aurten igerilekura sartzeko Urretxuko Kirol Txartela beharko da.

Aurten Zerki kirol zerbitzuek hartu dute igerilekuaren kudeaketaren ardura eta berrikuntza bezala hamaka zerbitzua, bibliopiszina eta jolasak eskaintzen dituzte. Instalazio honetan hiru hilabetez emango zaie zerbitzua erabiltzaileei, baina aurtengo denboraldiak, badakar nabarmentzeko moduko aldaketa. Izan ere, aurten lehen aldiz Urretxuko Kirol Txartela behar izango da igerilekuan sartzeko.

Gogoratu behar da Urretxuko Kirol Txartelak urte osorako balio duela, bai kiroldegia eta bere zerbitzuak erabiltzeko, baita Pagoeta igerilekuan sartzeko ere.

Urretxuko Kirol Txartelak 50 euro balioko du 3 eta 18 urte bitartekoentzat, langabetuentzat, ikasleentzat, jubilatuentzat eta pentsiodunentzat. 18 urtetik gorako langileek 100 euro ordaindu beharko dute; Familia abonua ere eskuragai dago, 150 euroan. Sarrerak aldiz, 2 euro (3-18 urte artekoak) eta 4 euro eta erdi (18 urtetik gorakoak) kostako dira. Informazio gehiago 943 03 80 92 telefonoan lor daiteke.



## Uda kanpaina 2011: Kirol ekintzak

**Urretxuko Kirol Zerbitzuak udako ekintzak egiteko programa zuzentzen die haurrei eta helduei.**

Uda garaian tenperaturak epeldu, oporrak gailendu eta aisialdi denbora handitzen dela aprobetxatuz, jarduera eta kirolaren eskaintza zabalagoa da.



Kiroletako Zerbitzuak UDA 2011 egitaraua abian jarri du uda garaian kirola egiteko aukera emateko. Kirol Zerbitzuak, duela urte batzuetatik hona udalerrian uda garaian egiten diren kirol ekintzak antolatzen ditu. Kanpaina hau 5 eta 18 urte bitarteko haur eta gazteei zuzendua dago. Haur eta gazteentzako aktibitate horiez gain antolatzen dira beste batzuk ere gainerako biztanleriarentzat.

5-18 urte bitarteko neska-mutikoentzako eta helduentzako UDA 11 programako kirolak ekainaren 27tik uztailaren 22ra bitarten egin daitezke eta gehienek 3 asteko iraupena dute. Hala ere badira 15 eguneko ikastaroak.

**Izen-ematea**

Izena emateko epea irekita dago Aldiri kiroldegian eta honako aktibitatean hauek garatuko dira:

- HAURRAK ETA GAZTEAK: Kirol ezberdinak (Tenis, Mountain bike, Fresbeee, Badminton ...), Irristaketa, Aerobik Gazte, Gazteziklo, Erritmika Gimnasia, Pilota eta Umeentzako Yoga
- HELDUAK: Mantentze gimnasia, Yoga, Zikloindor, Pilates, Aerobik, Ziklo-power eta Power+gap

Informazio eta argibideak honako telefonoan emango dira:
943 03 80 92.

_Kultura

# Urretxu beka



2010eko maiatzean Urretxuko Udalak "Urretxu Beka" Peio Galvezi ematea erabaki zuen. Dagoeneko lana bukatuta dago eta egilearengana hurbildu gara ondorio nagusienak ezagutzeko asmoz.

Gogora dezagun beka honen helburua urretxuar balioak bere alde guztietan ikertu eta definitzea zela.

**_Peio, nola antolatu duzu zure lana? Zein metodologia erabili duzu?**

*Lehenengo pausua aztertu beharreko balioak hautatzea izan da. Aukeratu diren balioak bere inguruan herriko jendea hurbildu eta mugitzea lortu dutenak izan dira: erlijioa, euskaltasuna, demokrazia...*
*Gero era "diakronikoan" aztertu ditut, hau da, denboran zehar izan duten eboluzioa behatuz.*

**_Nolakoak gara urretxuarrok? Zeintzuk dira gure balioak?**

*Urretxuar bakoitza desberdina da, baina herri moduan aritzerakoan badaude ezaugarri batzuk.*

*70. hamarkadan inflexio puntua dago: erlijiotasunak boterea galdu eta eguneko 24 orduak markatu eta gero beste balio berri ba-tzuk sartzen hasten dira, erlijiotik at: berdintasuna, euskaltasuna, ekologismoa, kiroltasuna eta balio demokratikoak. Sistema berri honetan, herritarrek aukeratu behar dute zein, nola eta noiz erabaki eta erantzukizun pertsonal gehiago dago balio horien artean aukeratu behar delako. Alde horretatik lasai esan liteke gaur egungo urretxuarrak askoz ere kontzienteagoak eta askeagoak direla.*

*90. hamarkada ere aipatu nahi nuke, oso berezia eta oparoa izan baitzen: herri-elkarte mugimendu handia egon zen, kultura, gizarte, kirol eta politikan.*

**_Zertan isladatzen da "berezko" nortasuna?**

*Urretxun beste inon ez bezala eman den eboluzioa eman da. Herri oso katolikoa izan zen eta garai batean euskalduna eta fededuna izatea berdina zen. XX. mendean, elkartasuna eta naziotasuna bereizten dira eta ondoren, etorkinen uholdeagatik herria asko aldatu zen. 70 hamarkadan balio berriak datoz, balio-sistema berria ezartzen hasten da oraindik gaur egun finkatzen ari dena. Urretxun, beste leku batzuekin konparatuta, beranduago gertatu da sistema ordezkapen hau eta horrek berak ere nortasun berezia ematen dio.*

*Beste aldetik, Urretxuk Zumarragarekin historian zehar izan duen harremana ere aztertu dugu, eta esan daiteke orain inoiz baino harreman hobea dagoela.*

_Udal hauteskundeak

# 2011ko Udal hauteskundeek lehenengo alkate andrea ekarri dute Urretxura



**Ekainaren 11n eratu zen Udalbatza berriak Oihane Zabaleta Mujika, BILDUko ordezkaria aukeratu zuen alkate. Urretxuko historian lehendabiziko emakumea da kargu hori izan duena.**

Hona hemen maiatzaren 22an egin ziren udal hauteskundeetan ateratako emaitzen taula:

| | botoak | % | batzarkideak | | botoak | % | batzarkideak |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **BILDU** | 1.201 | 33,62 | 6 | **ARALAR** | 191 | 5,34 | 0 |
| **EAJ - PNV** | 959 | 26,84 | 4 | **PP** | 177 | 4,95 | 0 |
| **PSE-EE** | 554 | 15,50 | 2 | **EB / B** | 124 | 3,47 | 0 |
| **HAMAIKABAT H1!** | 298 | 8,34 | 1 | **Zuriak** | 68 | 1,90 | 0 |

Hauek dira datozen lau urteotan Urretxuko Udalean lanean arituko diren zinegotziak:


**Oihane Zabaleta**
BILDU


**Jon Altolagirre**
BILDU


**Unai Badiola**
BILDU


**Josu Miren Sierra**
BILDU


**Aitor Otegi**
BILDU


**Jorge Andueza**
BILDU


**Itziar Agirre**
EAJ-PNV


**Anjel Errazu**
EAJ-PNV


**Ion Pol Agirre**
EAJ-PNV


**Jon Luqui**
EAJ-PNV


**M.ª Dolores Segade**
PSE-EE


**Fco. Javier Martin**
PSE-EE


**Luis Angel Tellez**
HAMAIKABAT H1!



(*hizkuntz bitxikeriak gustuko dituztenentzat, esan, alkate emakumea euskaraz aipatzeko era zuzena "alkatea" hitza bera dela edota "alkate andrea").

# _Tokiko Gobernu Batzarra / Junta de Gobierno Local

## _2011_02_28_

### Inauteriak: Egitaraua eta aurrekontua
Aho batez onartu da inauteritako egitaraua eta dagokion aurrekontua, 734,05 €.

### 2011ko lehiaketak
2011. urtean Urretxuk eta Zumarragak elkarrekin antolatu beharreko lehiaketak eta dagokion aurrekontua aho batez onartu dira.
Lehiaketak:
- XXIII. Pintura lehiaketa
- Argazki lehiaketak
- Iparragirre Saria 2011
- Lore sariketa
- Gabonetako Ipuin eta Krisma Lehiaketa.
- VII Kaleko pintura lehiaketa

Aurrekontua: Guztira 18.100€, Urretxuri dagokiona 7.410,14€.

### Euskal Kantuzaleen Elkartea: Proposamena
Aho batez onartu da "Iparragirre Kantuz" eta "GARTXOT, Itzaltzuko bardoa" jardueren antolaketa onartzea Zumarragarekin batera.
Urretxuri dagokion gastua, guztira 1.690,82 €.

### Goierri Xake: Diru-ekarpena
Erabaki da Goierri K.E.ko Xake sailari 216,90 euroko diru-ekarpena ematea, Urretxuko Gaztetxoen II Xake txapelketa antolatzeagatik.

### Gipuzkoako Txirrindularitza Elkargoa: Diru ekarpena
Erabaki da Euskaltrial Txirrindulari kirol elkarteari 300 euroko diru ekarpena ematea aipatutako ekitaldirako

### Euskararen aldeko ekitaldiak: diru-ekarpana
Aho batez erabaki da urtengo urtean euskaren alde egingo diren ekitaldietarako diru-ekarpen hauek ematea:
- Korrika 17 (km erostea) ....................... 500 €
- Kontseilua ....................................... 400 €
- Kilometroak .................................... 110 €
- Araba Euskaraz ............................... 110 €
- Ibilaldia ............................................ 110 €
- Nafarroa Oinez ................................ 180 €
- Herri Urrats ...................................... 180 €
- Sortzen Ikasbatuaz ........................... 110 €
- EHIGE_Eskola Publikoa .................... 110 €

### Argia: Publizitatea sartzea
Onartu da Argia aldizkariaren IHESI sailean Urretxuri buruzko artikulu bat egitea eta iragarki bat sartzea, horren guztiaren prezioa 731,60 € delarik.

### Ostegun Gizen eguna
Erabaki da Ostegun Gizen eguneko egitaraua eta bere aurrekontua, 3.550 € onartzea.

### Gernikako Arbola plaza berritzeko proiektua idaztea: Kontratu txikiaren esleipena: Ebazpena sendestea.
Aho batez erabaki da Antero-Fernandez Arquitectos S.L.P. enpresari esleitzea Gernikako Arbola berritzeko proiektua idazteko lana beti ere aurkeztutako aurrekontuaren arabera. Kontratuaren prezioa: 18.493,57€

### Gernikako Arbola plazako obretako zuzendaritza, arkitektoa eta arkitekto teknikoa: Kontratu txikiaren esleipena.
Aho batez onartu da Gernikako Arbola plazako obretako zuzendaritza (arkitektoa) lanak egiteko, kontratu txikiaren modalitatean, Antero-Fernandez Arquitectos S.L.P.ri esleitzea, beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, eta ondorengo baldintzetan:
- prezioa: 7.925,81 €
Gernikako Arbola plazako obretako zuzendaritza (arkitekto teknikoa) lanak egiteko kontratu txikiaren arabera esleitzea Juan Mª Erauskin eta Asier Perez jaunei, beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, eta ondorengo baldintzetan:
- prezioa: 7.925,81 €.

### Udaleko higiene eta arratoien aurkako zerbitzua: Kontratu txikiaren esleipena
Erabaki da Udaleko eraikuntzen higiene zerbitzua esleitzea Initial Textiles e Higiene, S.L. enpresari, beti ere otsailaren 1ean aurkeztutako 100 zk duen proposamenaren arabera, eta ondorengo baldintzetan:
- prezioa: 6.727,78 €
Arratoien aurkako zerbitzua aurrera eramateko, kontratu txikiaren modalitatean, Rentokil enpresari esleitzea, beti ere aurkeztutako proposamenaren arabera, eta ondorengo baldintzetan:
- prezioa: 4.914,70 €

### Ondasun, eskubide eta akzioen inbentarioa egitea: Kontratu txikiaren esleipena
Aho batez onartu da kontratu txikiaren modalitatean Udaleko ondasun, eskubide eta akzioen inbentarioa egiteko esleitzea Sastein . enpresari, eta ondorengo baldintzetan:
- prezioa: 21.035,86 €.

### Eguneko Zentroko garraioa: Faktura onartzea
Erabaki da 29.653,64 euroko zenbatekoa ordaintzea Urola Garaia Mankomunitateari, 2010eko laugarren hiruhilabetekoan zehar Eguneko Zentroari emandako garraio zerbitzuarengatik.

### Asfaltos Urretxu, S.A.: Sakabanatuetako 14an Deskargako errepidean, asfalto plantako jarduera baimena: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena.
Tokiko Gobernu Batzar honen iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

### TETRA zerbitzu prestazioari buruzko hitzarmena: Onarpena
Erabaki da Urretxuko Udalak eta Itelazpik sinatu beharreko hitzarmena onartzea, hain zuzen ere irrati-telekomunikazio mugikorren zerbitzu prestazioa TETRA sare batean eskaintzeko.

### Faktura zerrenda
1 zenbakia duen faktura zerrendaren berri eman da, 52.368,46 €koa

## _2011_03_14_

### Urretxu eta Zumarragako ahotsak
Horren helburua bi herriotako jende nagusiaren ahozko ondarea biltzea izanik aho batez onartu da "Urretxu eta Zumarragako Ahotsak" egitasmoa eta Urretxuri dagokion gastua onartzea, hain zuzen ere 2.653 eurokoa.

### Goifiber, S.L. Mugitegi Industrialdeko D bidean 48 zenbakian erretxinazko zuntzezko piezen fabrikaziorako tailerra: Irekitze baimena.
Baimena ematea erabakitzen da.

### Iparragirre 40ko jabekideak: Igogailua instalatzeko obra baimena
Erabaki da Iparragirre 40. zenbakia duen etxebizitza-eraikineko jabekideei igogailua jartzeko obra-baimena ematea, beti ere, Bosark Arkitektoak sinatutako eta 2010eko abenduaren 30ean dagokion Elkargo Ofizialak onetsitako proiektu teknikoaren arabera eta bete beharreko baldintzak bete ezkero..

### Trafiko Planaren jarduketak: Kontratu txikiaren esleipena.
Aho batez onartu da:
Urrate Berri Eraikuntzak, S.L. enpresari esleitzea, kontratu txikiaren modalitatean, Zumarragara sartzeko bideko aldaketa lanak eta Ipeñarrieta 24ko aparkalekuko obrak, hori guztia Trafiko Planaren barruan.
- prezioa: 24.602,28 €
Kontratu txikiaren modalitatean, Orion Señalización enpresari esleitzea Trafiko Planaren barruan egin beharreko seinalizazioaren hornidura eta instalazioa.
- prezioa: 16.395,65 €

### Oinezkoentzako pasabideak altxatzea: Kontratu txikiaren esleipena
JM Iparragirre Institutuan eta Elizaldean oinezkoentzako pasabideak altxatzeko lanak egiteko kontratu txikiaren arabera esleitzea Asfaltos Urretxu, S.A.
- prezioa: 20.838,80 €.

## _2011_03_31_

### Araba Errioxako ardo-dastatzea
Erabaki da apirilaren 15ean Santa Barbaran egingo den Arabako Errioxako ardo dastaketan egingo diren ekintzak eta aurrekontua, guztira 670 €, onartzea.

### Haurrentzako ekintzak.
Aho batez onartu da Zumarragarekin batera haurrentzako antolatu diren ekintzak eta bere aurrekontua onartzea. Urretxuko Udalari dagokion gastua 2.873,88 €.

### Liburuak plazara
Aho batez onartu da Liburuak plazara ekimenaren egitaraua eta gastua onartzea, hau da 225,27 €.

### VI. Lore azoka
Erabaki da Lore Azokaren egitaraua eta bere aurrekontua, guztira 2.500 €, onartzea.

### 2011ko udaleku irekiak: Pleguak onartzea.
Aho batez onartu dira Urretxu eta Zumarragako Udalek elkarrekin antolatzen dituzten udaleku irekiak arautuko dituzten plegu administratiboak eta teknikoak.

### Goierri ehiza: diru-ekarpena
Erabaki da Goierri K.E.ko ehiza sailari honako diru-ekarpena ematea,
- Ehiza xeheko lehiaketa soziala .........215 €
- Herri arteko plater tiraldia ..................200 €

### Goierri, K.E.: Diru ekarpena
Aho batez erabaki da Goierri K.E.ri 500 € diru-ekarpena ematea, A. Enriqueren omenezko txirrindulari proba antolatzeagatik.

### Urola K.E.: diru-ekarpena
Erabaki da Iñaki Mendiluzeren oroimenezko XVI. Txapelketa egiteko, 350 euroko diru-laguntza ematea Urola K.E.ri

### Iparragirre Institutorako garraioa: Diru-laguntza
Erabaki da J.M. Iparragirre Institutuari 386,98 €ko diru-laguntza ematea 2010-2011 ikasturteko garraiorako.

### Estali gabeko igerilekuen kudeaketaren kontratazioa prozedura negoziatua: Pleguak onartzea
Erabaki da prozedura irekiaren eta tramitazio arruntaren bidez esleitzea kontratua, prozedura negoziatua arautuko duten Baldintza Administratibo Berezien eta Teknikoen Plegua onartzea, dagokion gastua onartzea eta derrigorrez bete beharreko gainontzeko tramiteak betetzea, kontratua formalizatu arte.

### Faktura zerrenda
2 zenbakia duen fakturen zerrendaren berri eman da, 18.914,31 euroko.






# La diversidad, una oportunidad para la convivencia

*Kizkitza Ugarteburu*



**Es el principal objetivo del Plan para la Convivencia e Inmigración, que se presentó a primeros de junio.**

El Ayuntamiento de Urretxu, una vez realizado un diagnóstico sobre la situación de la población inmigrante en el municipio en el año 2009, decide poner en marcha un proceso participativo cuyo fin sería la gestión de la cada vez mayor diversidad existente en el pueblo. Para ello se pone en contacto con Parte Hartuz, un grupo de investigación y formación en democracia participativa integrado por personas de los departamentos de Ciencia Política, Sociología y Educación de la Universidad del País Vasco.

A lo largo de dicho proceso, se han realizado entrevistas y talleres con la gente de Urretxu, en los que se han puesto de relieve una serie de problemas a los que se ha tratado de dar respuesta. Como posibles soluciones han surgido una serie de acciones o medidas, sugeridas por la ciudadanía urretxuarra.

Dichas propuestas han de tener como fín un desarrollo comunitario que, mediante la construcción de redes sociales, facilite el contacto entre los y las urretxuarras. El plan pretende sumar y poner en valor medidas que se llevan a cabo desde el área para la igualdad de mujeres y hombres de Urola Garaia, desde el proyecto Izeba, el Gaztetxe y otras redes.

*Herritarren parte hartzearen bitartez eratu da Bizikidetza eta Immigrazio Plana.*

Como resultado del proceso llevado a cabo, las y los participantes han puesto encima de la mesa al

menos dos tipos de propuestas: Una **"Mesa mixta para la Convivencia"**. Se trataría de un espacio de participación e intercambio con una estructura que permita el tratamiento en común de los problemas del día a día.

Así mismo se propone la formulación y puesta en práctica de una **"telenovela"** cuyo objetivo sería la sensibilización sobre las diversas realidades existentes.

También se han sugerido una serie de medidas para la convivencia. **"Mintza laguna"** tiene como objetivo facilitar las relaciones entre las y los ciudadanos a través del uso del euskera. La creación de una **"red ciudadana para el momento de acogida"** debería servir de referencia en el momento de la llegada al municipio, facilitando la llegada a una realidad nueva, tratando cuestiones tales como trámites, expedientes, etc. Establecimiento de **"espacios interculturales"**, que faciliten el contacto; **"Banco del tiempo"**, creación de redes comunitarias de colaboración; **"estrategias informativas"**, desmontando prejuicios sobre falsas realidades; **"acciones formativas"**, así como **"acciones de fomento de la participación y el asociacionismo"**.

Desde el Ayuntamiento de Urretxu quieren agradecer a todos los participantes del proceso, que han sido unas 50 personas. Dos de ellos, el argentino Adrian Barrera y Domingo Abaha Mbomio de Guinea Ecuatorial, opinan que esta iniciativa es muy positiva y que les aportará muchos beneficios. Afirman que no han tenido ningún tipo de problema en su integración y quieren agradecer al Ayuntamiento, a los y las vecinas de Urretxu por su ayuda.

Finalmente recalcar que lo más importante de este plan es que ha surgido de los propios urretxuarras, en un esquema de abajo hacia arriba, desde los ciudadanos a las instituciones.

*Aniztasuna, bizikidetzarako aukera bat da.*

### Bizikidetzarako eta Immigraziorako Plana

Urretxuko Udalak Parte Hartuz, Euskal Herriko Unibertsitateko Ikerketa eta Hezkuntza taldearekin batera garatu duen plan honek bi proposamen nagusi biltzen ditu: **"Bizikidetzarako mahai mistoa"**, eguneroko arazoei aurre egiteko eta partekatzeko gune partehartzailea eratzea. Bestalde, errealitate desberdinei buruz sentsibilizazioa helburu duen **"telesaioa"** martxan ipintzea.

Beste zenbait neurri ere iradoki dituzte plan honetako parte hartzaileek, esaterako, **"Mintza laguna"** euskararen erabilera bultzatu asmoz.



*Maite Quevedo - M.ª Carmen Viedma*

**1.- Urretxun etorkin gutxi ala asko dagoela iruditzen zaizu?**
**2.- Eta kopurua esaten badizugu -7000 biztanletatik 345 dira etorkinak- zer iruditzen zaizu?**
**3.- Etorkinak ongi integratzen direla uste duzu? Eta urretxuarrak, integratzaileak gara?**
**4.- Zer iruditzen zaizu Udalak etorkinentzako integrazio planak bultzatzea?**

## MARI SOL BENITO

*1.- Me parece que hay mucho inmigrante.*
*2.- Pienso lo mismo, que para ser un pueblo pequeño es bastante.*
*3.- Es relativo, algunos están integrados y otros no, depende de qué país sean. Yo creo que nosotros sí somos integradores.*
*4.- No me parece mal, hay que favorecer la convivencia.*



## AITOR DIONISIO

*1.- Bai, dexente daudela iruditzen zait. Azken urteetan asko etorri dira.*
*2.- Gehiago zeudela uste nuen.*
*3- Nik, orokorrean, ez direla integratzen esango nuke, beraien artean erlazionatzen direla iruditzen zait. Guk ere oso integratzaile ez dugula jokatzen esango nuke. Arazoa alde bietan ikusten dut*
*4.- Ongi, herritarrei bezala lagundu behar zaie, ez gutxiago baina ezta gehiago ere.*

## M.ª TERESA GARCIA



*1.- Asko daudela iruditzen zait, batez ere ni gaztea nintzenean zeudenekin konparatuta.*
*2.- Nik oraindik gehiago zeudela pentsatzen nuen.*
*3.- Ez dakit, denetik egongo dela pentsatzen dut, ez dut etorkinik ezagutzen. Gure artean ere denetik egongo da.*
*4.- Ondo dago Udalak horretan laguntzea, ni beste herrialde batean etorkina banintz gustatuko litzaidake laguntza izatea.*



## CLARA LESMES

*1.- Hay muchos, según mi impresión.*
*2.- Me siguen pareciendo muchos.*
*3.- Yo creo que no se integran en el día a día, viven aquí pero mantienen sus costumbres. No creo que el problema seamos los urretxuarras.*
*4.- Me parece bien, al fin y al cabo tenemos que convivir todos juntos.*





1.- ¿Te parece que en Urretxu hay pocos o muchos inmigrantes?
2.- ¿Y si te decimos la cantidad -de 7000 habitantes 345 son inmigrantes - qué te parece?
3.- ¿Crees que los inmigrantes se integran bien?¿Y los urretxuarras, somos integradores?
4.- ¿Qué te parece que el Ayuntamiento impulse planes de integración para los inmigrantes?

## JOSE ALBERTO GAGO



1.- No me parece que haya muchos.
2.- Me parece que en comparación con otros municipios no es mucho.
3.- Yo creo que no se integran. Viven aquí pero mantienen su cultura.
4.- Me parece perfecto, pero lo que habría que pedirles son normas y exigencias.



## INO UGARTEBURU

1.- Asko esango nuke.
2.- Gehiago pentsatzen nuen.
3.- Hemen ere denetik egongo da, batzuk integratuta eta beste batzuk ez hainbeste. Herri bezela, ez dut uste horretan arazorik egon denik.
4.- Udalak laguntza planak aurrera eramatea ongi dago, baina hainbat esparrutan, hizkuntzari dagokionez adibidez, zaila ikusten dut ongi integratzea.



## CECILIA MBASOGO



1.- Creo que no somos muchos.
2.- Somos más de los que pensaba.
3.- Soy de Guinea Ecuatorial, y no llevo muchos meses aquí, pero sí creo que es un pueblo integrador. Tengo amigos que llevan más de 15 años en Urretxu y nunca han tenido ningún problema.
4.- Me parece bien.

## OSKAR GONZALEZ



1.- Ez dut uste asko daudenik
2.- Uste nuena baina gehiago direla.
3.- Denetik dago, batzuk ez dira integratzen, baina ezagutzen ditut oso ongi integratuta daudenak ere. Urretxuarren aldetik ez dut uste etorkinak integratzeko arazorik dagoenik.
4.- Helburua laguntzea bada, ba ongi.

# Migraciones en Urretxu: Habitantes según su lugar de nacimiento

*Aztiker*




Según los datos publicados por INE, las personas residentes en Urretxu, tiene los siguientes lugares de procedencia:

- El 40,3 % ha nacido en el mismo Urretxu, es decir, unas 2.787 son las personas nacidas en el mismo municipio.
- El 33,7% ha nacido en la provincia de Gipuzkoa, pero en otras poblaciones de la provincia. Dicho porcentaje corresponde a 2.326 personas.

  El 1,6% de la población ha nacido en las otras dos provincias de la CAV, es decir, son 113 las personas que han nacido en Araba o en Bizkaia.
- El 19,3% ha nacido en otras comunidades del Estado Español, siendo en total 1.335 personas.
- El 1,8% ha nacido en algún otro estado de la Unión Europea, 126 personas.
- El 3,3% ha nacido fuera de la Unión Europea, es decir, 225 personas son las nacidas fuera de la Unión Europea.

## Urretxuarras nacidos fuera de la Unión Europea según su lugar de nacimiento

Las mencionadas 225 personas urretxuarras que han nacido fuera de la Unión Europea, tienen el siguiente lugar el nacimiento:

- No hay personas nacidas en Oceanía.
- El 3,1% de 225 ha nacido en algun país de Europa, no perteneciente a la Unión Europea.
- El 12,4% de 225 ha nacido en algún país de Asia.
- El 31,1% ha nacido en algún lugar de Africa.
- El 53,3% ha nacido en algún lugar de América.

Así pues, se afirma que la mayoria de las personas urretxuarras nacidas fuera de la Unión son de origen americano y africano.

Según sexo, la mayoria son hombres, el 52%, frente al 48% que son mujeres.

Así pues, para diseñar políticas de inmigración y convivencia, ¿Qué características se deberían tener en cuenta?



_Kaixo Gazte / Kaixo Joven

# Amaia Apaolaza eta Jone Aranzeta korrikalari finak!

*Ana Isabel Iturbe*



## Amaia Apaolaza

**Amaia**, 13 urteko urretxuarra, duela urte batzu hasi zen atletismoa praktikatzen, anai zaharrena horretan zebilen eta bera ere animatu egin zen, zergatik ez!

Gaur egun, “Goierri Garaia” atletismo taldearekin entrenatu eta lehiaketa ezberdinetan parte hartzen du, bere espezialitatea martxa izanik.

Zergatik martxa? “Jende gutxik parte hartzen zuela ohartu nintzen, bide batez errexa ere iruditu zitzaidan”dio irribartsu.

Iaz, infantil mailan zebilela, Gipuzkoako martxa txapelketan lehen postua lortu zuen, 3.000 metrotan, eta Euskadiko mailan txapeldun izatea lortu zuen. Aurten, Gipuzkoako txapelketan ere irabazle suertatu da. A ze marka, ez?

Astean hiru egunetan entrenatzen du, astelehen, asteazken eta ostiraletan, batzutan Ikastolan, beste batzutan Argixaon.

Kirola egiteak beste gauzetarako denborarik ez dio kentzen, oso gustukoa duenez. Beste gauzen artean ere musika atsegin du; musika eskolan bibolin taldean dabil.

“Maiatzean Gipuzkoako txapelketan parte hartu nuen eta taldeka hirugarrenak geratu ginen” dio.

Herri mailan kirolari gazte ugari dago, eta hauen artean Ainhoa Sanz korrikalaria aipatzen du bereziki, etorkizunean haren moduan ibiltzea gustatuko litzaioke.

“Lagunak egiten dituzu konzentrazioetan, ondo pasatzen duzu; alde on asko ditu kirol honek” erantzuten du Amaiak. Jarraitu hórrela eta aurrerantzean ere txapelak lortzen saiatu, eta batez ere ondo ondo pasatu kirola egiten, Amaia!



**Jonek** 12 urte ditu eta Amaiaren moduan atletismoa praktikatzen du; txikitatik du gustukoa, bere hasierak herri krosetan izan zirelarik. Orain, “Goierri Garaia” atletismo taldean dabil entrenatzen eta lehiaketetan. Erosoen aurkitzen den espezialitatea abiadura da, 80 metrotan; horrekin bat jabalina jaurtiketan ere aritzen da, entrenatzera astearte nahiz ostiraletan joaten delarik.

Denboraldia bi zatitan banatzen dute; irailetik otsaila bitartean herri krosetan lehiatzen dira eta otsailetik ekaina bitartean pistan.

Iaz, alebin mailan, Gipuzkoako txapelketan parte hartu zuen eta 60mtan hirugarrena geratu zen. Iazko San Juanetan Irimoko igoeran nesketan irabazle suertatu zen, baita Legazpiko Millan ere.

Aurten, infantiletan, Jabalinan Gipuzkoako txapelketan bigarrena izan da, hau marka hau!

Kirolak lagunekin egoteko denborarik ez diola kentzen dio, eta horrez gain musika eskolan dabil Amaia bere lagunaren moduan.

Ainhoa Sanz herriko kirolaria miresten du, horrekin bat dator Amaiarekin; etorkizunean, berak duen mailara iristea gustatuko litzaioke, nork daki Jone!

Nahiz eta batzutan lesioak kalte egin, kirol guztietan bezala, oso ondo pasatzen du atletismoa praktikatzen, eta gainera lagunak egiten ditu.

Aurrera neska, saiatuz gero nahi duzuna lortuko duzu, txapelak hor dituzu zain!!

## Jone Aranzeta



*“Orain Euskadiko Eskola Kirol Txapelketan aritu dira eta brontzezko dominak jaso dituzte.”*

# Urretxu eta Schwarzenbruck, 20 urte elkarri begira

*M.ª Carmen Viedma*



Ezkerretik eskubira: Horst, Ion Pol eta Reinhard

**Askotan, hainbat arrazoi tarteko Urretxu eta Schwarzenbruck herrien arteko senidetzea ekarri dugu orrialde hauetara.**
**Orain, 20 urte betetzen direnean, anaitzea hasieratik bizi izan duten bi lagunen eskutik, esperientzia horren berri dakarkizuegu.**
**Mila esker Horst eta Jon Pol.**

**_Aurkeztu zuen buruak Kaixoko irakurleei**

**_¿Os podeis presentar a los lectores de Kaixo?**

*Ion Pol Agirre. 39 urte. Enpresaritzan diplomatua. Urretxuarra, karrozero ohia, Zakataprost kuadrilakoa.*
*Kaixo! Me llamo Horst y vivo en Schwarzenbruck, en el centro de Franconia. Soy economista en el Ayuntamiento de Schwarzenbruck y encabezo el departamento de urbanismo. Mis aficiones son variadas: toco la tuba, soy bombero voluntario y pesco en los ríos y lagos en la zona de Schwarzenbruck, también conozco muy bien los ríos Ebro y Segre.*
*Mi pasión es la Bundesliga,sobre todo el Nuremberg. Además sigo los resultados del txuri-urdin.*

**_Noiztik eta nola ezagutu zenuten elkar?**

**_¿Cuándo y cómo os conocisteis?**

*Ion Pol - Aspalditik, 10 urte baino gehiago izango dira lagunak garela.*

*Horst - Ion Pol y yo nos conocemos desde hace muchos años. Hasta hoy hemos tenido muchos encuentros en Urretxu y en Schwarzenbruck. Su hermana es de la cuadrilla de una amiga mía que conocí en Alemania.*

**_Zer ekarri dizue senidetzeak zuei eta zuen herriei?**

**_¿Qué ha aportado el hermanamiento a vuestros pueblos y a vosotros mismos?**

*Ion Pol - Anaikidetzari esker hainbat lagun ditut Schwarzenbruck-en, eta beraien eskutik Alemania eta Frankoniari buruz gauza asko ikasi ditut. Era berean, nik Urretxu eta Euskal Herriari buruz ere gauzak erakusten saiatu naiz.*

*Horst - Los turistas ven paisajes, edificios... Pero si hay un hermanamiento se puede sentir el alma de la gente. Se puede entrar en la mente y en el corazón. Por eso el contacto es mucho más intenso y amplía el horizonte. Se aprende mucho uno del otro y se aprende entender la cultura de allí y aquí.*

> *Los turistas ven paisajes, edificios... Pero si hay un hermanamiento se puede sentir el alma de la gente.*

**_Uste al duzue oraingo gazteek berdin bizi dutela senidetzea ala hasierako jendearentzat besterik ez da?**

**_¿Creeis que los jóvenes de hoy viven también el hermanamiento o solo lo hacen aquellos que lo vivieron en sus inicios?**

*Ion Pol - Urretxu eta Zumarragako 16-19 urteko hainbat gaztek, aurreko bi urtetan bai Schwarzenbruck eta bai Urretxun antolatutako gazte topaketan parte hartzeko aukera eduki zuten eta ziur nago beraiek gu bezela asko gozatu zutela. Gauza berriak ikusi, ikasi, lagun berriak egin... Orain desberdina da, akaso, harremana mantentzen laguntzeko sare sozialak ere badituzte eta.*

*Horst - Los que promovieron el hermanamiento son el fundamento, ya que construyeron una plataforma que ahora sirve a los jóvenes. Los encuentros juveniles en los últimos dos años en Schwarzenbruck y Urretxu demuestran que los jóvenes viven las ideas de sus padres.*

**_Pasadizoren bat ba al daukazue anaitzearekin lotutakoa?**

**_¿Teneis alguna anécdota relacionada directamente con el hermanamiento?**

*Ion Pol - Beno, ni asko harritzen naiz, Schwarzenbruck-era joan eta Urretxukoa zarela esaten duzunean... aurpegia aldatzen zaiela dirudi, herriko aldizkarirako argazkiak ateratzen dizkizute... oso habegikorrak dira.*

*Horst - Unos vecinos de Urretxu creyeron que trabajaba allí. Pensaron que era un vecino más. Un día al llegar a Urretxu un chico se dirigió a mí en euskera. No entendí nada pero respondí "gaur". Todos mis amigos quedaron callados.*

**_Zer edo zer gehiago aipatzeko edo kontatzeko?**

**_¿Algo más que comentar?**

*Ion Pol - Nik, senidetzearen inguruan antolatzen diren ekintzetan jendeari parte hartzeko gomendatuko nioke: ikusi, dastatu, ikasi, jende berria ezagutu... aberasgarria da oso, alde guztietatik begiratuta. Zailena akaso harremana mantentzea da, baina nire ustez, haiek, gu bezala, lagunak betirako egiten dituzte.*

*Horst - El ex-alcalde de Schwarzenbruck paga algo para la fiesta de una boda vasca-alemana. Ojalá tenga que pagar pronto.*



# Itziar Sasieta
## Santa Barbarako serora

Gorka Azkarate

**Mendizabal baserriko Itziar Sasieta Santa Barbara baseliza garbitzeaz arduratzen da; borondatezko lanetan aritzea modaz kanpo dagoela dirudien garai honetan, ez da ohikoa horrelako lanak musutruk egingo dituenik aurkitzea. Berak, hamarkadak daramatza lan honetan.**

**_Zertan datza zehazki Santa Barbarako baselizan egiten duzun lana?**

*Baseliza txukun eta garbi mantentzeaz arduratzen naiz. Lurra garbitzea izaten da lanik handiena, erratza pasa eta zikinkeria kentzea, alegia. Tarteka argizari pixka bat ere ematen diot, egoera onean manten dadin. Ermita normalean itxita egonagatik, ikaragarria da horrelako lekuetan pilatzen den zikinkeria, ate azpitik, zirrikituetatik... toki guztietatik sartzen da zikinkeria. Behar bezala garbitu ezean, berehala hondatu eta galduko litzateke baseliza.*

**_Ohiko garbiketa lanez gain, meza dagoen egunetan ere izan ohi duzu bestelako lanik.**

*Bai, ermita txukun mantentzeaz gain, meza dagoen egunetan apaizak aurretik behar dituen tramankuluak jartzeaz, meza aurreko kanpaia jotzeaz, eta mezako diru-biltzeaz ere ni arduratzen naiz. Gaur egun, Santa Barbara egunean, San Anton egunean eta San Isidro egunean entzun daiteke meza baselizan, San Juan eguna eta bere bederatziurrena ahaztu gabe. Urtean zehar, zenbait ezkontza ere egon ohi dira. Egun horietan, sakonago garbitzen dut baseliza, noski.*

**_Noiz hasi zinen lan honetan?**

*Ama jubilatu zenean hasi nintzen. Hura bizirik zegoen artean ere ardura nagusia nik nuen, azkenaldera, bera mezetara etorri bai, baina garbike-*





*Gustura egiten dudan lana da, maiz esan izan didate Santa Barbarak izango duela neretzat txokoren bat gordeta zeruan...*

*ta lanak neronek egiten bainituen. 45 urte inguru daramatzat. Gure ama, berriz, ezkondu zenean hasi zen, orain dela 80 urte inguru.*

**_Borondatezko lanetan aritzea ez da oso ohikoa bizi garen gizarte honetan...**

*Jendeak uste du lan ordaindua dela, baina ez da horrela. Ordaindua balitz, beste norbaitek hartuko luke, seguru. Osasunak uzten didan artean, jarraitzeko asmoa dut. Bi seme dauzkat, baina ez dut uste beraiek jarraitzeko gogorik dutenik...*

**_Baserrian ere lanean aritzen zarela kontuan hartuz, ermita garbitzearen ardura izanik, aspertzeko denborarik ez duzu izango...**

*Baserrian lan egitea gogorra da; gau eta egun egon zaitezke geratu gabe lanean, eta ez da lana bukatzen. Ezagutzen ez duenarentzat zaila da irudikatzea. Eta ermita txukun mantentzearena ere, ardura bat da. Hala ere, herentzi bezala hartu nuen lan hau nire amaren eskutik, eta berak egindakoaren jarraipena denez, gustura egiten dut. Santa Barbarak izango duela zeruan niretzat txokoren bat gordeta, hala esaten didate maiz...*

**_Garai batean diru-biltzea egiteko ohitura ere bazegoen Santa Barbara egunaren bueltan, ezta?**

*Santa Barbara abenduaren 4an da, eta parrokirako diru bilketa egiteko ohitura zegoen, bai, baserriz-baserri joanda. Batzuek, erdi txantxetan-edo, sekula ezin da jakin, gutaz gaizki-esaka aritzen ziren, eta poliki-poliki ohitura galduz joan zen. Ermitaren mantenurako biltzen zen dirua, eta guk, artean gaztetxo ginela, meriendatzeko sos batzuk baino ez genituen jasotzen orduko apaizaren, Don Nikolas Madinabeitiaren, eskutik. Baina badakizu gauza horiek nola izaten diren...*

**_San Juan bederatziurrena garai berezia da zuretzat.**

*Bai, ekainaren 16an hasi ohi da eta San Juan egunean bukatu. Garai polita izaten da. San Juan egunean baseliza txiki geratzen da, baina bederatziurrenera ez da jende gehiegi etortzen. Lehen, uda garaian meza izaten zen hemen igandero, eta horrek auzoa elkartzeko balio zuen. Kaleko jendea ere etortzen zen. Inguruko baserritarrontzat aukera polita zen tertuliarako.*

Itziar Sasieta lleva décadas dedicada a las labores de mantenimiento y conservación de la ermita de Santa Barbara. Es la herencia que recibió de su madre hace ya muchos años. La ermita de Santa Barbara suele estar habitualmente cerrada, pero acoge misa en días señalados, como por ejemplo el día de San Juan y en su novena. Mientras la salud le acompañe, tiene intención de seguir ejerciendo de serora.

# Gernikako Arbola estreinakoz Urkiolan

*Jon Castrillo*

**Un 13 de Junio, festividad de S. Antonio, pero de hace ahora casi 150 años entre las numerosas personas que acudieron a Urkiola para cumplir con la tradición se encontraba también Iparragirre para, como buen trovador amenizar la romería, dándose así la circunstancia de que ese día y en ese lugar fue cuando cantó por primera vez en Euskal Herria su más famosa obra, el himno** *Gernikako Arbola*.



1854. urteko San Antonio egunean, Bizkaiako Urkiolan, eta ondorioz Euskal Herrian, milaka ikusleren aurrean lehen aldiz abestu zuen, Iparragirre gazteak, bere kanturik mitikoena: “GERNIKAKO ARBOLA”.

Urkiolan izandako kantaldi hark guztiz baldintzatu zuen Iparragirreren bizitzaren norabidea gerora begira. Diotenez, Iparragirreren kantuek, bihotzak mugiarazi eta barru-barruko grinak sortarazi zizkien Urkiolan zeuden 6.000 inguru ikus-entzuleri; eta, GERNIKAKO ARBOLA kantua entzutean,

*Muchas de las 6000 personas allí congregadas fueron las que incluso se arrodillaron al escuchar el himno.*

txapelak burutik kendu eta han belaunikatu omen zen erromes asko eta asko.

*Por este acto fue juzgado en Tolosa y condenado a destierro perpetuo por desórdenes públicos.*

Arabako Diputatu Nagusia zen Pedro Egañak, Urkiolan gertatukoaren berri azaldu zuen Madrilgo Gorteetan: “...Señores: El zortziko de Iparragirre hizo vibrar emociones e ideologías largo tiempo enmudecidas (...). Tuviera o no la intención de enardecer a las masas, creo que el Gobierno hizo bien al mandar que ese hombre saliese del país, porque (...), era posible que hubiera producido tal impresión en las muchedumbres, que tal vez hubiera sido preciso que interviniera la fuerza pública”.

Eta horrela, Iparragirrek, bere bigarren desterrua bizi behar izan zuen. Kasualitatez, urte batzuk lehenago, Frantziako Toulusen La Marsellesa kantatzeagatik aldendu zuten bezala, oraingoan Tolosan (aurrekoaren izen bereko herrian) erabaki zen bere erbesteratzea.

Urkiolan bildutako abertzale askok ordurako bazuten Iparragirreren ospearen berri, bereziki 1853an, Madrilgo S. Luis kafetegian emandako kantaldiagatik. Han bildu zirenek diotenez GERNIKAKO ARBOLAren bertsoak botepronton asmatutakoak omen ziren eta inoiz ez omen zuen doinua idatzi.

*Se dice que fue un zortziko improvisado y que no anotó nunca la música.*

# Kaixo txiki!

*Ana Isabel Iturbe*

Apirilean oporretan geunden....
ikusi zein ondo pasa genuen tailerretan!



**ANE eta MADDI**
4 urte

Oso ondo pasatu zuten margotzen!

**AISLING**
4 urte
Aurpegia printzesaz margotu zuen!





**XABIER eta PABLO**
11 eta 5 urte

Saskibaloian, margotzen, koltxonetan, baloiarekin... aspertzeko astirik gabe, gustora ere!!

Oporretan gustora, eskolan baino hobe!!

**JON, NAHIA eta BEÑAT**
4 eta 5 urte





**NAHIA eta MADDI**
8 eta 4 urte

Margotzeaz gain ederki ibili ziren jolasean!



## Eta orain... udako oporrak!

Piszina, udalekuak.... jo, ze gustura ibiliko garen, eh txiki!

Udako marrazki honetan gauza asko daude, hauetako batzu alderantziz idatzi ditut, saiatu ondo jartzen....ONDO PASA saltserok!

- aikzuge
- aosasti
- sastsi-arrazi
- aorramarrak
- airoxt



# Pagoeta Udal Igerilekua

Udal igerilekua egunero zabalik **irailaren 11 arte**.
*Piscina municipal, abierta todos los días* ***hasta el 11 de septiembre****.*

---

## bibliopiszina



Udako liburutegia izango da udal igerilekuan. Bertan, kirol txartela aurkeztuz, liburu eta aldizkariak hartu eta hantxe irakurtzeko aukera izango duzue (karneta eduki ezean, nortasun agiria erakutsita ere nahikoa izango da).

*En las piscinas municipales tendremos la biblioteca de verano. Presentando la kirol txartela (o, en caso de no tenerlo, el D.N.I.) se podrán coger libros y revistas para leer en la misma piscina.*

## haur gunea



Haurrentzako gune berezia:
Ohe elastikoak, saskiak, porteria, txirrista…

*Un espacio especialmente pensado para los niños/as: camas elásticas, canastas, portería, tobogán….*

Ordutegia / *Horario:* 11:00 - 20:00
Lekua / *Lugar:* Urretxuko Pagoeta udal igerilekua
*Piscinas municipales de Urretxu*



www.urretxu.net

**Urretxu**ko udala